

IBARRURIKO IBARRAKO ANDRA MARI ELIZA

Ibarrurin parrokiako eliza eraiki nahi zuten. Elizate honetako bost Kofradia edo Auzoek eliza euren lurretan eraikitzea gura zuten. Horregatik, auzotarren artean eztabaida eta liskar ugari gertatu ziren. Azkenean, Otazazelain, Ajuriako bidean, egitea adostu zuten. Hasi ere hasi ei zuten eliza hori leku horretan, baina egiten zituzten lan guztiak, gauez Ibarra deituriko lekura joaten ei zitzaizkien. Hurrengo goizean materialak hartu eta berriro Otaza-zelaira eramaten bazituzten ere, hurrengo goizerako berriro Ibarra zeuden.

Eta baten atso bat begira jarri egin ei zen materialak lekuz nork mugitzen zituen ikusteko, baina, bat-batean begi bat galdu ei zuen. Orduan, erabaki zuten Otaza-zelaian egin beharrean gaur egun Ibarra Andra Mari dagoen lekuan egitea.



Ibarruriko Ibarreko Andra Mari eliza.